



KORAPILOA ASKATU

MATERIALA: bi zapi.

AZALPENAK:

Erdian jolasaren arduraduna jarriko da eta bi muturretan ume taldeak. Talde bakoitzean zenbat haur, horrenbeste zenbaki, eta ume bakoitzak zenbaki horietako bat izango du (bost baldin badaude, batetik bostera). Erdian dagoenak kolore ezberdineko bi zapi izango ditu, esku banatan zintzilik. Talde bakoitzari zapi horietako bat dagokio. Arduradunak zenbaki bat esango du eta zenbaki haren bi jabeak korrika abiatuko dira, nor bere zapia hartu, besteen taldera joan eta hango ume bati zapia korapilatuko dio, hankan edo besoan. Gero, bere taldera itzuli eta beste taldekoak korapilatu duen zapia askatu eta arduradunari itzuliko dio. Hori lortzen duen lehena izango da txapelduna, bestea kanporatuta geldituko da. Hurrengo jokaldian banatu egingo dira bost zenbakiak gelditzen diren lau jokalarien artean. Horrela, talde bat jokalaririk gabe geratu arte.



ΚΑΤΗΡΟΚΟΑ

